



Noizbait Siberiako lurretan ibiltzea zenuen amets, lur haiek zapaldu gabe ustekabeen joan zara, orde, hutsune handia utzita Meatzaldeko jende askoren bihotzetan.

Pyrenaica aldizkariaren ia sorta guztia zenuen etxean, mendi erreportaien bidez urrutira joaten zinelako. Behin esan zenidan munduko gerretan argazkilari izan nahi zenuela gaztetan, baina horren ordez euskal gatazkan murgilduta urte preso izatera eraman zintuela bihiak.

Ortuellako La Raleran jaio zinen, oraindik urbanizatu gabe dagoen etxe txiki eta txabolen meatzari auzoan. Mendia eta eskalada maite zenituen ez he-mendik gertu, Asturiaseko Europako mendietan zenbiltzan beti gustura.

Inguru erdaldunean eta Euskal Herriarekin lotura handirik gabe, nik ez nuen ulertzen zerk eraman zintuen ETako kide izan eta bi hamarkada baino gehiago kartzelan ematera. Hori galdetu nizun behin ardiekin mendian egiten genituen ibilaldietan. Zuk kontatu zenidan gure etxean bezala zuek ere gerrako galtzaile izan zinetela, eskola nazionalen galtzaileekiko bazterkeria jasan zenutela, frankismo garaiko askatasun falta, euskal ezaugarrien debekuak eta

Inguru erdaldunean
eta Euskal
Herriarekin lotura
handirik gabe,
nik ez nuen ulertzen
zerk eraman zintuen
ETako kide izan eta
bi hamarkada baino
gehiago kartzelan
ematera

abar. Chéren liburu guztiak irakurriak zenituen eta hura zenuen izar, Txomin aipatzen zenuen batzuetan eta negar malkotan Tturkoz oroitzen zinen baratzeko osteko zure etxeko bazkarietan.

Gure herrian bizitzeak, uneak, zure izaerak eta aldaketarako gogoak eraman zintuzten zure bidea egin eta ondoren

etorri zen zigorra jasatera. Lubaki artean, ordea, harremana mantendu zuen beste alderditan zebiltzan herriko lagunekin eta zubiak apur ez zitezen saiatu zinen bakearen alde zure eskue-tan zegoena egiten.

Gertukoentzat, berriz, balio kolektiboak, auzolana, elkartasuna, gazteekiko interesa eta umorea izan dira zure ezauzgarri nagusiak.

Oroitzen naiz zein alai zinen zuen etxe zaharreko teilatua lagun artean berritu genuenean. Zein erraz harremantzen zinen kaleko jendearekin, gutxi zeukanaarekin eta kartzelako preso sozialekin, eta zein gogoko zenuen gatzeei entzun eta dakarten munduaz jabetzea.

Kobazuloetan zenbiltzan gusturen, barrunbetan argia itzali eta hango isiltasunean lehengo meatzariak irudikatzen zenituelako. Hortik *Euskal Herriko Bronx* deitzen zenion gure eskualdeari, hemen dugun desegituraketa sozialaz jabedun.

Azkenean ez zara Siberiara iritsi, baina ez dago eman duzuna adierazteko oroitarririk, bereziki gure eskualdean aurrera egiteko hainbeste behar den, jende desberdina elkartzeko eta ondo sentiarazteko, ilusio, energia eta indarra. ●

ARGIA Urtarrilak 22, 2023